

DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (1. ald.)

2020-2022

(2021eko urriaren 14ko B21/1714 Alkatearen Ebazpenaren bidez aldatuta)

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko tresna gisa, Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat egiteko beharra ezartzen du, lortu beharreko helburuak aurreikusitako kostuekin erlazionatu ahal izateko.

Horrekin bat etorritik, Beasaingo Udalaren 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egiten da, herritarren beharrei erantzutea helburu duena, behar gehien duten sektoreei modu eraginkorrean lagunduz eta udalerriaren garapen sozial, ekonomiko eta iraunkorrarekin konpromisoa hartuz.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak interes orokorreko zat jotzen diren gizarte-ekimen jakin batzuk sustatzeko teknika bat dira eta Administrazio publikoaren eta herritarren arteko lankidetzak bultzatzeko modu bat, interes publikoko jardueren kudeaketan.

Oro har, diru-laguntza horien hartzailleak irabazi-asmorik gabeko erakundeetan antolatutako taldeak izan ohi dira, hala nola elkarteak edo fundazioak, eta horien jarduera-eremuak askotarikoak dira: gizarte-ekintza, kultura, hezkuntza, ingurumena, kirola, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena, garapenerako lankidetzak, etab.

Kontuan hartuta dirulaguntzak gastu publikoaren modalitate garrantzitsua direla eta hartzailleak oso heterogeneoak direla, beharrezkoa da haien prozedura eta funtsezko alderdi nagusien arauketa ezartzea.

Horrela, 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa beharrezko osagarria izango da diru-laguntzak emateko, 2020-2022 aldirako Beasaingo Udalaren dirulaguntzen arloko printzipio eta estrategiak laburbiltzeko, izapidetzeko eta emateko araubidea edo prozedura edozein dela ere, eta honako hauek bereiziko dira:

- Norgehiagoka araubidean emandako dirulaguntzak, hau da, aurkeztutako eskabideak konparatzeko aurretiazko prozesu bat egin behar dutenak, haien arteko lehentasun hurrenkera bat ezartzeko oinarri arautzaileetan eta deialdi publiko batean aldeztu aurretik finkatutako balorazio-irizpideekin, eta balorazio handiena lortu duten hautagaiei

esleitzeko.

Hala ere, dirulaguntza arautzen duten oinarriek salbuetsi ahal izango dute aurkeztutako eskabideen artean lehentasun ordena bat ezartzeko betekizunetik, baldin eta deialdian adierazitako kreditua nahikoa bada, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren.

- Zuzeneko emakida araubideko dirulaguntzak, aldez aurreko deialdi publikorik egin beharrik gabe. Emakida-araubide hau salbuespenezkoa da eta honako dirulaguntza mota hauetara mugatzen da:

- Toki erakundeen aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitakoak, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.
- Ematea edo zenbatekoa Administrazioari lege mailako arau batek ezartzen dionean.
- Beste dirulaguntza batzuk, salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituztenak, edo deialdi publikoa zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste batzuk.

ARAU ESPARRUA

Diru-laguntzen plan estrategikoa egitea arautzen duen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua eta 13. eta 17. xedapen gehigarriak.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorraren 10. artikulutik 15. artikulura.
- Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.

Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorraren zioen azalpenean, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa beharrezko tresna gisa definitu eta kontzeptualizatu da, aurrekontua esleitzeko politika dirulaguntzen bidez kudeatutako politika publiko bakoitzean lortutako errendimendu eta helburuekin lotzeko.

IZAERA JURIDIKOA

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, "herri-administrazioetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duen edozein erakundek, aldez aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte haren aplikazioaren bidez lortu nahi diren xedek eta ondorioak, hura lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu egonkortasunari buruzko helburuak betetzearen menpe.

Dirulaguntzen plan estrategikoa politika publikoak planifikatzeko tresna programatiko bat da, arau-izaerarik gabea, eta haren edukia ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen; haren eraginkortasuna dirulaguntza lerroak abian jartzearen baldintzapean geratzen da, aurrekontuaren baliabideen arabera.

PLANAREN EDUKIA

Beasaingo Udalaren 2020-2012 aldirako Plan Estrategikoa I. eranskinean jasota dago, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta honako hau jasotzen du:

- Planaren indarraldian erakunde-ekintzarekin lortu nahi den eragina eta inpaktua deskribatzen duten **helburu estrategikoak**, 2022ko aurrekontu proiektuan diru-laguntzak emateko kredituak jasotzen dituen aurrekontu-programaren helburuei lotuta daudenak. Hauek dira:

- 1.- Gizarte-ekintza sustatzea
- 2.- Udalerriko kultura-jarduera babestea.
- 3.- Euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatu eta normalizatzea.
- 4.- PrestakuntzaJarduerak sustatzea eskola jardueraren osagarri gisa.
- 5.- Kirola sustatzea, jarduera fisiko gisa eta aisialdiko jarduera

gisa.

6.- Merkataritzaren, enpresaren eta turismoaren garapena babestea.

7.- Udalerri osasungarria eta atsegina sortzen laguntzea.

- Helburu estrategiko bakoitzean zehazten diren diru-laguntza **lerro bakoitzak** honako hauek jasotzen ditu:
- Eragindako eskumen arloa eta laguntzen xede diren sektoreak.
- Hura aplikatzearekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak.
- Hori lortzeko behar den epea.
- Gauzatzeko kostuen aurreikuspena eta finantzaketa-iturriak.
- Ekintza-plana, planean txertatutako diru-laguntzen lerroa edo lerroak abian jartzeko mekanismoak zehazten dituen.
- Planaren helburuarekin zerikusia duten adierazleak, bakoitzaren egoera eta helburuak betetzean lortutako aurrerapenak ezagutu ahal izateko.

FINANTZAKETA

Plan Estrategiko honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezarri ahal izateko, urte bakoitzeko udal-aurrekontuan dagozkion kredituak sartu beharko dira, eta dirulaguntzen deialdia arautuko duten oinarriak onartu beharko dira, eta salbuespenez, zuzeneko emakidaz.

Diru-laguntza emateko, ezinbestekoa da aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren printzipioak betetzea.

ONARTZEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 8. artikulua Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat onartzeko betebeharra ezartzen du, baina ez du ezartzen zein den horretarako organo eskuduna. Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (TAOAL) ez du aipatu tresna aipatzen diren eskumenak udal organoen artean banatzeko orduan. Horren ondorioz, ez dago argi zein den onartzeko organo eskuduna.

Lege hutsune bat dago Dirulaguntzen Plan Estrategikoarentzat. Ezin da parekatu aurrekonturako xedatuta dagoenarekin, Plan Estrategikoa, ez baita kudeaketa ekonomikorako tresna bat, plangintzakoa baizik. Horren ondorioz, ez da hirugarrenen aldeko betebeharririk edo konpromisorik sortzen; aitzitik, udalerriak jarraitu beharreko ildo batzuk baino ez dira ezartzen, eta ez dira lotesleak izango.

Beraz, badirudi egokiena dela Alkateari esleitzea hura onartzeko eskumena, TAOAL Legearen 21.1 s) artikuluan oinarrituta; izan ere, egiazki, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak udalei ezartzen die Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat onartzea, baina ez dio eskumen espresua ematen ezein organori, eta egoera hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 s) artikuluan jasotako egitatezko kasuan sartzen da.

PLANAREN KONTROLA ETA JARRAIPENA

Plan honen kontrola eta jarraipena urtean behin egingo da, bi alderditan:

- Emandako diru-laguntzen kontrol ekonomiko-finantzarioa: udal kontu-hartzailetzari dagokio, eta indarrean dagoen legerian jasotako baldintzetan egingo da.
- Planaren kontrola eta jarraipena urtero egingo du dirulaguntzak kudeatzen dituen sail bakoitzeko arduradun teknikoak, eta, horren ondorioz, hurrengo aurrekontu ekitaldiko apirilaren 30era arteko epean justifikazio-memoria bat egingo da, zehaztapen hauekin:
- Xedea, erakunde onuraduna eta emandako zenbatekoa.
- Justifikatutako, uko egindako eta itzulitako diru-laguntzei buruzko informazioa.
- Helburuen betetze-maila, jarraipen eta ebaluazio adierazleak aipatuta.
- Kostu efektiboak, aurreikus daitezkeenekin alderatuta.
- Lortu nahi diren helburuak betetzeari buruzko ondorioak edo balorazio orokorra, eta, ondorioz, programa mantentzeko edo ezabatzeke proposamena.
- Hurrengo Plan Estrategikoa egiteko proposamenak.

Memoria hori dagokion Informazio Batzordean aurkeztuko da.

INDARRALDIA ETA EGUNERATZEA

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 11.4

artikuluaren arabera, plan estrategikoek hiru urteko indarraldirako aurreikuspenak izango dituzte, eragindako sektorearen izaera berezia dela eta beste plan estrategiko bat ezartzea komeni denean izan ezik.

Erregelamenduzko aurreikuspen hori kontuan hartuta, eta udalaren dirulaguntzen jarduerak eragindako sektoreetan izaera berezirik ikusten ez denez, Plana 2020-2022 aldian egongo da indarrean, hargatik eragotzi gabe dirulaguntzen lerro batzuek indarraldi txikiagoa izatea.

Aurrekoa gorabehera, urtero planaren jarraipena egin beharko da, aurrekontu baliabideak kontuan hartuta, lortu nahi den helburu mailara iristen ez diren edo inbertitutako baliabide mailarako desegokia den dirulaguntzen lerroak aldatu edo ordeztu ahal izan daitezen, eraginkorrak diren beste batzuekin, edo, hala badagokio, kendu.

Plan honetan aurreikusi gabeko diru-laguntzen lerroren bat sartu nahi duten aurrekontu-aldaketen kasuan, aldez aurretik edo aldi berean aldatu beharko da.

Lehendik dagoen diru-laguntza lerro baten barruan zenbatekoak aldatu edo diru-laguntza berriak jartzen diren kasuetan, ez da beharrezkoa izango Plana aldatzea. Horretarako, sail kudeatzailearen txostena beharko da, gastu berria sartzen den dirulaguntza lerroa egokitzen dela egiaztatzeko.

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honek 2020ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak.

GARDENTASUNA

Gardentasun-printzipioa betetze aldera, Udalak lerro estrategiko bakoitzean emandako dirulaguntzak, laguntza-programak eta deialdiak urtero argitaratuko dira udalaren webgunean, bai eta Diru-laguntzen Oinarri Nazionallean ere, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta erakunde hartzailea, haren zenbatekoa eta xede duen proiektua edo ekintza adierazita.

Sail kudeatzaile bakoitza izango da aipatutako argitalpenen arduraduna, eta, horretarako, jarraibide egokiak emango dira, horiek betetzeko prozedura ezarritik.

I. ERANSKINA

Jarraian, helburu estrategiko bakoitzak zer alderditan eragin nahi

duen eta horietako bakoitzerako aurreikusitako diru-laguntza ildoak zehazten dira.

1.- GIZARTE-EKINTZA SUSTATZEA

Mendekotasun-egoeran, zaurgarritasun egoeran, babesgabetasun arriskuan eta gizarte bazterketako egoeran dauden kolektiboen beharrei aurre egiten eta arazo espezifikoak konpontzen lagunduko duten ekintzak sustatzea da helburua, bai eta garapenerako lankidetza ekintzak ere. Hau da, pertsonen ongizateari laguntzeko jarduerak.

Onuradun izan daitezke, bai pertsona fisikoak, bai adierazitako helburuekin bat datozen elkarte edo pertsona juridikoak.

DIRU-LAGUNTZA LERROAK:

1.1.- PERTSONEN GIZARTERATZEA ETA AUTONOMIA SUSTATZEN DUTEN PROGRAMAK BABESTEA.

Eskumen arloa	Gizartekintza
Dirulaguntza helburu duten sektoreak	Bizi kalitatea eta gizarteratzea mugatzen dituen egoera zailean dauden herriko pertsonak eta/edo familiak.
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	- Familiaren eta talde guztien gizarteratzea, autonomia eta ongizatea ahalbidetuz, funtzio asistentziala, sustatzailea, prebentiboa eta babeslea garatuz. - Mendekotasun egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arreta sustatzea.
Lortzeko beharrezko epeak	Iraupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	7.200,00 euro
Ekintza-plana	Udal finantzazioa
	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea - Izapidetzea: sail kudeatzailea.

	- Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituenak:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia. - Deialdi publikoaren zailtasuna. - Diru-laguntza bakoitzeko eskaera kopurua - Diru-laguntza bakoitzeko onuradun kopurua
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	-Emakumeak - Gizonezkoak - Eskatzaileek egiaztatutako gastuaren estaldura-maila - Aurrekontu aurreikuspenaren egikaritze maila

1.2 BALIABIDE EKONOMIKO URRIAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

Eskumen arloa	Gizartekintza
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	- Udal-zergak ordaintzeko baliabide ekonomiko urriak dituzten herriko pertsona fisikoak. - Gastu zehatz batzuri aurre egiteko baliabide ekonomiko urriak dituzten herriko pertsona fisikoak. Babesik gabe geratzeko arriskuan dauden pertsonen eta familien ongizatea sustatzea.
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	Iraupen zehaztu gabea.
Lortzeko beharrezko epeak	
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	63,500,00 euro
Ekintza-plana	Udal finantzazioa
	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:

	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea - Izapidetzea: sail kudeatzailea. - Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituen: - Diru-laguntzaren izaera berezia. - Deialdi publikoaren zailtasuna. - Diru-laguntza bakoitzeko eskaera kopurua - Diru-laguntza bakoitzeko onuradun kopurua -Emakumeak - Gizonezkoak - Eskatzaileek egiaztatutako gastuaren estaldura-maila - Aurrekontu aurreikuspenaren egikaritze maila

1.3 ADINEKO PERTSONAK LAGUNTZEA

Eskumen arloa	Gizartekintza
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	Aranealde Jubilatu eta pentsiodunen elkarteak
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	- Beste pertsona batzuekin harremanak izateko topagune bat eskaintzea. - Estimulazio eta jolas-jarduerak

	antolatzea.
Lortzeko beharrezko epeak	- Udalerrian zahartze aktiboari dagokionean erreferente izan. - Iraupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	65.000,00 euro
Ekintza-plana	Udalaren finantzaketa eta elkartearen berezko diru-sarrerak
	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea - Izapidetzea: sail kudeatzailea. - Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituen:
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	- Diru-laguntzaren izaera berezia. - Deialdi publikoaren zailtasuna. - Udalerrian erroldatutako 65 urtetik gorako pertsonen kopurua. - Bazkide kopurua. - Bazkide diren pertsonen portzentaia. - Antolatutako jarduera kopurua. - Jarduerako partaide kopurua.

1.4.- GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEA

Eskumen arloa	Gizartekintza
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea helburu

Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	duten herriko elkarteak - Gizon eta emakumeen arteko elkartasun eta berdintasun baloreak sustatzea
Lortzeko beharrezko epeak	- Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa helburu duten proiektuak bultzatzea Iraupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	22.000,00 euro
Ekintza-plana	Udal finantzazioa
	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea
	- Izapidetzea: sail kudeatzailea.
	- Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituen:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia.
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	- Deialdi publikoaren zailtasuna.
	- Egindako sentsibilizazio eta prebentzio jarduerak kopurua.
	- Jardueretako partaide kopurua.
	- Elkarteen bazkide kopurua.

1.5.- GIZARTE-LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO LAGUNTZA

Eskumen arloa	Gizartekintza
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	- Euskal Autonomia Erkidegoko Irabazi-asmorik gabeko elkarteak,

	nazioarteko lankidetzarako, sentsibilizaziorako eta garapenerako hezkuntzarako jarduerak egiteko.
	- Garatze Prozesuan dauden Herrialdeetan larrialdietan eta ekintza humanitarioetan aritzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko GKEak.
	- Garabide Kultur Elkarteak.
	- Herrian, gizarte arloan, Beasaingo herritarren bizi kalitatea hobetzeko lanean ari diren erakundeak
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	- Pertsonen osasuna eta bizi- kalitatea hobetzea helburu duten esku-hartze- edo/eta sentsibilizazio-proiektuak bultzatzea.
	- Garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleen bizi- baldintzak hobetzen laguntzea, mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko konpromiso-jarrerak sortuz herritarrengan.
Lortzeko beharrezko epeak	Iraupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	195.500,00 euro Udal finantzazioa, elkartearen sarrera propioak eta beste erakunde batzuen finantziazioa
Ekintza-plana	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka: - Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea - Izapidetzea: sail kudeatzailea. - Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea

	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek ojektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituen:
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	- Diru-laguntzaren izaera berezia. - Deialdi publikoaren zailtasuna. - Diruz lagundutako proiektu kopurua entitate bakoitzeko. - Artatutako pertsona kopurua proiektu bakoitzeko. - Sentsibilizazio eta heziketa jarduerak kopurua. - Jardueretako partaide kopurua.

1.6.- OSASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATZEA

Eskumen arloa	Gizartekintza
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	Beasainen osasunarekin eta bizi-kalitatearekin lotutako ikerketa proiektuak garatzen dituzten erakundeak
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	Pertsonen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea helburu duten eskuhartze- eta/edo sentsibilizazio proiektuak bultzatzea
Lortzeko beharrezko epeak	Iraupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	4.200,00 euro
	Udal finantzazioa, elkartearen sarrera propioak eta beste erakunde batzuen finantziak
Ekintza-plana	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea - Izapidetzea: sail kudeatzailea. - Diru-laguntzak emateko organo

	eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen aldez aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituen:
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	- Diru-laguntzaren izaera berezia. - Deialdi publikoaren zailtasuna. - Artatutako pertsona kopurua. - Egindako ikerketa kopurua. - Diruz lagundutako erakunde kopurua. - Sentsibilizazio eta heziketa jarduera kopurua. - Jardueretako partaide kopurua.

1.7.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO GASTUAK

Eskumen arloa	Gizartekintza
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	Ohiko edo ezohiko gastu espezifikoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten udalerriko pertsonak eta/edo familiak.
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	Gizarte bazterketako egoerak prebenitzea, saihestea edo arintzea.
Lortzeko beharrezko epeak	Traupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	158.843,00 euro
Ekintza-plana	Eusko Jaurlaritzaren Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea

Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa

- Izapidetzea: sail kudeatzailea.
- Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
- Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen aldez aurreko memoria, honako hauek ojektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituenak:
- Diru-laguntzaren izaera berezia.
- Deialdi publikoaren zailtasuna.
- Eskaera kopurua
 - Onartuak:
 - Emakumeak
 - Gizonak
 - Titular berriak
- urtean
 - Ukatuak
 - Artxibatuak
- Onuradunen kopurua.
- Titular nazionalen kopurua.
- Titular nazionalak ez diren kopurua.
- 65 urtetik gorako titularren kopurua:
 - Bakarrik bizi direnak:
 - Emakumeak
 - Gizonak
 - Familian bizi direnak:
 - Emakumeak

- Gizonak
- 65 urtetik beherako titularren kopurua:
- Bakarrik bizi direnak:
 - Emakumeak
 - Gizonak
- Guraso bakarreko familian bizi direnak:
 - Emakumeak
 - Gizonak
- Familia tradizionalen bizi direnak:
 - Emakumeak
 - Gizonak
- Eskatzaileek egiaztatutako gastuaren estaldura maila.
- Aurrekontu aurreikuspenaren gauzatze maila.

1.8.- 18-35 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT ETA MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAT ETXEBIZITZA HUTSEN ALOKAIKURUA SUSTATZEA

Eskumen arloa

Diru-laguntza helburu duten sektoreak

Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak

Gizartekintza

Etxebizitza alokatzen duten 18-35 urte bitarteko eta mugikortasun urria duten pertsona fisikoak

- Etxebizitza duina eta egokia izateko aukera erraztea, alokairuko etxebizitzaren kopurua handituz.

- Etxebizitza hutsen kopurua murriztea

	- Gazteei etxebizitzarako sarbidea erraztea
Lortzeko beharrezko epeak	- -Mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasun-baldintzak betetzen dituzten etxebizitzetarako sarbidea erraztea - Iraupen zehaztu gabea
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	25.000€
	Udal finantzazioa eta beste administrazio publikoak
Ekintza-plana	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea - Izapidetzea: sail kudeatzailea. - Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituenak:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia. - Deialdi publikoaren zailtasuna - Izandako diru laguntza eskaera kopurua - Onartutako diru laguntza eskaera kopurua
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	

2.- UDALERRIKO EKINTZA KULTURALAK BABESTEA

Garapen komunitarioa, kultura sorkuntza eta aisialdiko eta jaiegunetako ekitaldien sustapena bultzatzen duten jarduerak soziokulturalak sustatu nahi dira herritarren asebetetzea maila lortzea ongizatea bermatzeko. Aldi berean ere, euskal kultura eta ondare inmateriala babesteko eta ezagutzera emateko jarduerak.

Era berean, haur eta gazteentzako programak sustatzen dituzten ekimenei laguntza eman nahi zaie, garapen pertsonala eta autonomia bultzatzeko.

DIRU-LAGUNTZA LERROAK:

2.1.- KULTUR ETA JAI-JARDUERA EKINTZEN GARAPENA.

Eskumen arloa	Kultur sustapena
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	Beasaingarren intereserako jarduera kulturalak egiten dituzten herriko elkarteak
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	- Kulturalki aktiboa den herria sortzea bultzatu: arte eszenikoak, plastikoak eta kultur adierazpenak oro har eskaintzea eta kultur sorkuntza dinamizatzea. - Herrigintza, kulturgintza eta euskal kulturaren transmisioa. - Kultur jarduerak herriko eta landa auzoetan egingo direla bermatzea.
Lortzeko beharrezko epeak	Iraupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	180.825,00 euro
Ekintza-plana	Udal finantzazioa
	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea - Izapidetzea: sail kudeatzailea. - Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituenak:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia.

Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa

- Deialdi publikoaren zailtasuna.
- Egindako ekitaldien kopurua.
- Jarduera aurrera eramateko egindako ordu kopurua.
- Jarduera antolatzen inplikaturako pertsona kopurua
- Ikusle kopurua.

2.2.- KULTUR SORKUNTZA SUSTATZEA.

Eskumen arloa
Diru-laguntza helburu duten sektoreak

- Kultur sustapena
- Literatura eta Musika jarduerak garatzen dituzten pertsona fisikoek.
 - Kultur sorkuntza orokorrean eta kultur adierazpen ezberdinak garatzen dituzten pertsona fisikoak edo erakundeak.
 - Musika eta literatura sorkuntza bultzatzea
 - Musika eta literatura eskaintza bultzatzea
 - Diziplina anitzeko sorkuntza bultzatzea
 - Sortzaileak proiektuak aurrera eramateko aukera izatea
 - Adin guztietarako eskaintza kulturala sustatzea
 - Esparru zabaleko kultur eskaintza bermatzea.
 - Udaleko kultur proiektuetan herritarren inplikazioa bilatzea
 - Iraupen zehaztu gabea.

Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak

Lortzeko beharrezko epeak

Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	17.060,00 euro
Ekintza-plana	Udal finantzazioa eta beste erakunde batzuk
	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea
	- Izapidetzea: sail kudeatzailea.
	- Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituen:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia.
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	- Deialdi publikoaren zailtasuna.
	- Sari kopurua.
	- Ekitaldi kopurua
	- Parte-hartzaile kopurua.
	- Onuradunen adin tartea
	- Onuradunen generoa
	- Aurkeztutako kultur adierazpen mota

3. EUSKARAREN IKASKUNTZA ETA ERABILERA BULTZATZEA ETA NORMALIZATZEA.

Euskararen erabilera normalizatzeari ekin nahi zaio, haren ikaskuntza erraztuz eta erabilera bultzatuz. Horretarako, hirigintzako paisaia eta herritarren eguneroko jardura guztietan euskararen presentzia sendotu nahi da.

DIRU-LAGUNTZA LERROAK:

3.1.- EUSKARAREN IKASKUNTZA BULTZATZEA

Eskumen arloa	Hizkuntza politika
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	Pertsona fisikoak
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	- Euskara ikastea sustatzea, hizkuntza bizirik mantentzeko
Lortzeko beharrezko epeak	Iraupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	28.000,00 euro
Ekintza-plana	Udal finantzazioa
	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea
	- Izapidetzea: sail kudeatzailea.
	- Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen aldez aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituen:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia.
	- Deialdi publikoaren zailtasuna.
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	- Ikasle kopurua.
	- Ikastaroa gainditzen duten ikasle kopurua.

3.2 EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEA.

Eskumen arloa	Hizkuntza politika
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	- Euskararen erabilera bultzatzea helburu duten herriko elkarteak
	- Tokiko eta eskualdeko euskarazko komunikabideak
	- Helbide fiskala Besainen daukaten establezimenduak

Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	- Euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza bizirik mantentzeko
Lortzeko beharrezko epeak	- Merkataritzan euskararen erabilera sustatzea - Iraupen zehaztu gabea
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	121.628,00€
	Udal finantzazioa eta beste administrazio publikoak
Ekintza-plana	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea - Izapidetzea: sail kudeatzailea. - Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek ojektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituenak:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia. - Deialdi publikoaren zailtasuna - Egindako jarduera kopurua. - Jardueretako parte-hartzaile kopurua. - Hiztun kopurua. - Dirulaguntza eskari kopurua. - Dirulaguntza eskari onartu kopurua.
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	

4.- JARDUERAK SUSTATZEA ESKOLA-JARDUERAREN OSAGARRI GISA

Helburu estrategiko honek irakaskuntzarekin lotutako eskolaz kanpoko jarduerak lortzen lagundu nahi du

DIRU-LAGUNTZA LERROAK:

4.1 HEZKUNTZARI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Eskumen arloa	Hezkuntzari laguntza
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	Herriko Ikastetxeak
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	Bizikidetza, erantzunkidetasuna, aukera-berdintasuna, ... oinarritutako prestakuntza-jarduerak eta hazkunde pertsonaleko jarduerak sustatzea.
Lortzeko beharrezko epeak	Iraupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	Urteko 72.000,00 euro
Ekintza-plana	Udal finantzazioa
	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea
	- Izapidetzea: sail kudeatzailea.
	- Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituen:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia.
	- Deialdi publikoaren zailtasuna.
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	- Egindako ekintza kopurua
	- Parte-hartzaile kopurua

5.- JARDUERA FISIKOA ETA AISIALDIA SUSTATZEA ETA BULTZATZEA.

Ariketa fisikoak garapen pertsonalean eta bizitza osasungarria bermatzen laguntzen duela kontuan hartuta, helburua da praktika hori babestea, helburu horiek lortze aldera. Horregatik, horren inguruan egiten diren kirola eta aisialdiko jarduerak sustatu nahi dira, horretarako erabiltzen diren instalazioak ondo kudeatuz.

DIRU-LAGUNTZA LERROA:

5.1 KIROL ETA AISIALDIKO JARDUERAK BULTZATZEA

Eskumen arloa	Kirola
Diru-laguntza helburu duten sektoreak	- Kirola egitea helburu duten pertsona fisikoak, kirol erakundeak edo irabazi asmorik gabeko elkarteak.
	- Udalerrian kirol ekitaldiak egiten dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak.
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	- Kirol jarduera areagotzea diziplina guztietan, kirol minoritarioak barne.
	- Kirolaren bidez osasuna hobetzea.
	- Gizarte eta federazio funtzioa eta kirol erakundeen lana bultzatzea.
	- Udalerria sustatzeko kirol ekitaldiak garatzea.
Lortzeko beharrezko epeak	Iraupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	342.204,12 euro
	Udal finantzazioa, elkartearen sarrera propioak, babesleak eta beste erakunde batzuen finantziazioa
Ekintza-plana	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea

- Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa
- Izapidetzea: sail kudeatzailea.
 - Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
 - Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen aldez aurreko memoria, honako hauek ojektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituenak:
 - Diru-laguntzaren izaera berezia.
 - Deialdi publikoaren zailtasuna.
 - Denboraldiko ohiko jarduera kopurua.
 - Aparteko jarduera berezi kopurua.
 - Kluben eta kirol elkarten egiturak garatzeko jarduera kopurua.
 - Parte-hartzaile kopurua.
 - Ikusle kopurua.
 - Finantzaketa portzentaia.

6.- GARAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA ETA TOKIKO TURISMOA SUSTATZEA.

Udala dinamizatu nahi da jarduera ekonomikoak garatuz, merkataritza, enpresa eta turismo sektoreak sustatuz.

DIRU-LAGUNTZA LERROA:

6.1 EKINTZAILEENTZAKO ETA ENPRESENTZAKO GARAPEN ETA AUKERA GUNE BERRIAK SORTZEA

- | | |
|---------------------------------------|---|
| Eskumen arloa | Merkataritza eta turismoa |
| Diru-laguntza helburu duten sektoreak | - Jarduera ekonomikoa sortzen laguntzen duten proiektuak dituzten pertsona fisikoak edo legez eratutako erakundeak. |
| Helburuak eta lortu nahi diren | - Ekintzaileentzako eta |

ondorioak	enpresentzako garapen eta aukera espazio berriak sortzen laguntzea. - Udalerrriaren garapen ekonomiko eta sozialean parte hartzen duten eragileen arteko lankidetzaren sareak ezartzea. - Inguruko enpresen eta enpleguaren hazkundea. - Dinamizazio ekonomikoa laguntzen duten jarduerak bultzatzea.
Lortzeko beharrezko epeak	Iraupen zehaztu gabea.
Aurreikusitako kostuak	Urteko deialdiak
Finantzazioa	1.000,00 euro
Ekintza-plana	Udal finantzazioa
	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea
	- Izapidetzea: sail kudeatzailea.
	- Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituenak:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia.
	- Deialdi publikoaren zailtasuna.
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	-Goiekirekin harremana izandako ekintzaile kopurua
	- Jarduera martxan jarri duen ekintzaile kopurua

6.2 UDALERRIKO MERKATARITZA SEKTOREA BULTZATZEA

Eskumen arloa Diru-laguntza helburu duten sektoreak	Merkataritza eta turismoa Jarduera ekonomikoa sortzen laguntzen duten proiektuak dituzten pertsona fisikoak edo legez eratutako erakundeak.
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	Merkataritza eremuan udalerri aktibo baten alde egiten duten jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoak eta elkarteak. Saltoki txikiei laguntzea. Udalerriaren garapen ekonomiko eta sozialean parte hartzen duten eragileen arteko lankidetzaren sareak ezartzea. Hurbileko produktuen merkataritza eta salmenta sustatzea. Dinamizazio ekonomikoa bultzatzen duten jarduerak bultzatzea. Iraupen zehaztu gabea.
Lortzeko beharrezko epeak	
Aurreikusitako kostuak Finantzazioa	Urteko deialdiak 37.104,70 euro Udal finantzazioa eta beste erakunde publiko
Ekintza-plana	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka: - Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea - Izapidetzea: sail kudeatzailea. - Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituenak: - Diru-laguntzaren izaera berezia.

Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa

- Deialdi publikoaren zailtasuna.
- Burututako jarduera kopurua.
- Formazio saioetan parte hartutako merkatari kopurua.
- Bareak-eko bazkide berrien kopurua.
- Lokal hutsak erosi edo alokatzeagatik dirulaguntza eskatutakoen kopurua.

6.3 UDALERRIAN TURISMOA SUSTATZEA

Eskumen arloa
Diru-laguntza helburu duten sektoreak

Merkataritza eta turismoa

- Jarduera turistikoa sortzen laguntzen duten proiektuak dituzten pertsona fisikoak edo legez eratutako erakundeak.

Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak

- Odolki kofradia
 - Udalerriko turismo-sustapena eta jarduera ekonomikoa bultzatzea.
 - Hurbileko produktuen merkataritza eta salmenta sustatzea.
- Iraupen zehaztu gabea.

Lortzeko beharrezko epeak

Urteko deialdiak

Aurreikusitako kostuak
Finantzazioa

5.500,00 euro
Udal finantzazioa eta beste erakunde publikoena
Deialdi publiko bidezko norgahiagoka:

Ekintza-plana

- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea
- Izapidetzea: sail kudeatzailea.
- Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea

Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen alde aurreko memoria,

	honako hauek ojektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituen:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia.
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	- Deialdi publikoaren zailtasuna. - Odolki lehiaketako partaide kopurua.
	- Urteko odolki kapituluan parte hartutako kofradien kopurua.

7.- UDALERRI OSASUNGARRIA ETA ATSEGINA SORTZEN LAGUNTZEA.

Beasaingo herritarrak ingurumenarekin konprometitutako ingurune zainduan, seguruan, irisgarrian bizi daitezen laguntzen duten jarduerak eta jarduerak sustatzea du helburu.

DIRULAGUNTZA LERROA:

7.1.- ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK BIRGAITZEA ETA SEGURTASUN-, OSASUNGARRITASUN- ETA APAINDURA-BALDINTZETAN MANTENTZEA.

Eskumen arloa Diru-laguntza helburu duten sektoreak	Hirigintza eta ingurumena - Pertsona fisikoak, juridikoak eta jabeen erkidegoak EITetatik eratorritako jarduketetarako.
	- Pertsona fisikoak, auzolaneko proiektuak egiteko auzo elkarteak.
Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak	- Eraikitako parkea birgaitzea eta eraikinen segurtasun eta apaindura baldintzak mantentzea.
	- Bizitegi eraikinetarako irisgarritasuna hobetzea.
	- Auzoetako azpiegiturak mantentzea eta hobetzea.
Lortzeko beharrezko epeak	Iraupen zehaztu gabea.
	Urteko deialdiak

Aurreikusitako kostuak	10.630,00 euro
Finantzazioa	Udal finantzazioa
Ekintza-plana	Deialdi publiko bidezko norgehiagoka:
	- Udalbatzak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onartzea - Izapidetzea: sail kudeatzailea. - Diru-laguntzak emateko organo eskuduna: Alkatea
	Salbuespen gisa, zuzeneko emakida, Alkatearen aldez aurreko memoria, honako hauek objektibo eta arrazoinalki justifikatzen dituen:
	- Diru-laguntzaren izaera berezia. - Deialdi publikoaren zailtasuna. - Egindako jarduketan kopurua. - Emandako diru-laguntzen zenbatekoa.
Jarraipenerako adierazleak eta ebaluazioa	

[pdf Finantzaketa laburpen taula 2022. aurreikuspena \(143 KB\)](#)